



FORU DEKRETUA

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saila
Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren
Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzua
Nº Expte.:18/5-P

Onestea Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak lehiaketa bidez esleitzen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak, Arabako lurralde historikoetako udalerrak jendez hustea eragozteko laguntza larri buruzkoak.

Foru Gobernu Kontseiluaren agintaldiko helburuetako bat da lurralde oreka lortzea, hartakotzat adituz Arabako herritar guztiek izatea sarbidea oinarritzko zerbitzuetara berdintasunez.

Dirulaguntza horien helburu nagusia da Arabako lurralde historikoko landa inguruneak enpresa azpiegitura oinarritzko hornitzea, egokiro gara daitezela, eta horretarako laguntza publikoa ematea, osterantzean zail izango bailitzateke haiek irautea. Zerbitzu horiek, nagusiki, merkataritza jarduerak dira, eta, era osagarri batez, turismoa, jatetxeak, telekomunikazioak eta gizarte zerbitzuetan, enpresetan edo profesioetan izan litezkeen edo udalek eurek atzematen dituzten beste gabezia batzuk ere bai. Horiek horrela, laguntza horien bidez lortu nahi da herritarrentzako zerbitzuei eustea, udalerrien ekonomia garapena sustatzea eta gizarte jardura dinamizatzea. Laburbilduz, dirulaguntza horien bidez eragotzi nahi da Arabako lurralde historikoko udalerrak jendez hustu daitezela.

Ikusirik zer behar dagoen oinarri argiak eta zehatzak ezartzeko dirulaguntza horiek eskuratu ahal izateko, eta hartara objektibotasun, lehia eta publizitate printzipioak bermatzeko, eta, halaber, 11/2016 Foru Araua (11/2016 Foru Araua, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzei buruzkoa) eta 38/2003 Legea ezarritakoa aplikatuz (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra), hona hemen Arabako lurralde historikoko udalerrak jendez hustu ez daitezela emango diren laguntza larriak arautuko dituzten oinarri orokorrak, dagokion deialdian aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoentzat.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Ondorioz, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bileran aztertu ondoren, hau,



XEDATZEN DUT

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Sailak lehiaketa bidez esleitzen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak, onartzea Arabako lurralde historikoetako udalerririk jendez hustea eragozteko laguntza lerroei buruzkoak. Aipatu diren oinarriok eranskin gisa datoz Dekretu honetan.

Vitoria-Gasteiz,

Ramiro González Vicente

Diputatu nagusia
Diputado General

María Pilar García de Salazar Olano

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren
eta Lurralde Oreken diputatua
Teniente de Diputado General y Diputada de
Desarrollo Económico y Equilibrio Territorial



ERANSKINA

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak lehiaketa bidez esleitzen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak, Arabako lurralde historikoetako udalerriak jendez hustea eragozteko laguntza lerroei buruzkoak.

1. Xedea eta aplikazio eremua.

Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak Arabako lurralde historikoetako udalerriak jendez hustea eragozteko jardueretarako dirulaguntzak esleitzen ditu lehiaketa bidez aurrekontu kredituen kontura; bada, Dekretu honek ezartzen ditu dirulaguntza horiek nola esleitu behar diren arautzen duten oinarri orokorrak.

Dirulaguntza lerro hauei aplikatuko zaizkie:

- 4.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietarako laguntza lerroa, herritarrei zerbitzu berriak emateko lokalak egokitu eta ekipatzeko, hala nola ile apaindegiak, podologoak, masajistak eta abar. Era berean, udalerrri horietan zerbitzuak ematen dituzten profesionalen joan-etorrietarako laguntza ematen da.

- Laguntza lerroa, 4.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietarako, landa eremuetan zerbitzu anitzetako establezimenduak ezartzeko, hala nola elikagai dendak eta abar, eta haien instalazioak sustatu eta hobetzeko. Landa eremuetako zerbitzu anitzetako establezimenduen helburuak dira herritarrentzako zerbitzuei eustea, udalerrien ekonomia garapena sustatzea eta gizarte jarduera dinamizatzea. Zerbitzu horiek, nagusiki, merkataritza jarduerak dira, eta, era osagarri batez, turismoa, jatetxeak, telekomunikazioak eta gizarte zerbitzuetan, enpresetan edo profesioaletan izan litezkeen edo udalek eurek atzematen dituzten beste gabezia batzuk ere bai.

- 1000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietarako laguntza lerroa, autonomoentzako zuzeneko laguntzak ematekoa, haien kuota ordainduz bi hilabeteetan, orokorki, eta hiru hilabeteetan, jarduera 2018an hasten dutenen kasuan.

- Laguntza lerroa, 4.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietarako, udalerrietako langabetuentzako enplegua sortzeko. Alde horretatik, udalerrri bakoitzak hainbat proiektu aurkez ditzake, udalaren eskumeneko gai ei dagozkienak, eta proiektuan adierazi behar du zenbat pertsona behar dituen. Azken batean, herriak jendez hustearen kontra egin nahi da, lanpostuak sortuz lanpostuak sortzea zaila den lekuetan, hau da, udalerrri txikietan.

Deialdian honako hauek zehaztu behar dira:

- a. Zein xedapenetan jasotzen diren oinarri arautzaileak eta ALHAOren zein aletan argitaratu ziren.
- b. Zer aurrekontu kredituri egozten zaion dirulaguntza eta eskura diren kredituen barruan zer zenbateko egiten duten guztira kreditu baliagarrien barruan emango diren dirulaguntzek.
- c. Dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua.
- d. Dirulaguntzak lehiaketa bide emango direla adieraztea.
- e. Dirulaguntza eskatzeko zer baldintza bete behar diren eta nola egiaztatu behar diren.
- f. Adieraztea zeintzuk diren prozedura bideratu eta ebazteko eskumena duten organoak.



g. Eskabideak aurkezteko epea.

h. Ebazteko eta jakinarazteko epea.

i. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta informazioa.

j. Hala balegokio, ea badagoen aukerarik eskabidea berregiteko Dirulaguntzen Lege Orokorraren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera eta 11/2016 Foru Arauaren 25. artikuluan xedatutakoaren arabera (11/2016 Foru Araua, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzena).

k. Adieraztea ea ebazpenak amaitzen ote duen administrazio bidea, eta, amaituko ez balu, zein organoren aurrean aurkeztu ahal den gora jotzeko errekurtsua.

1. Eskabidea baloratzeko irizpideak. Irizpideon bitartez, bermatu behar da dirulaguntzak esleitzean objektibotasuna, berdintasuna, gardentasuna, publizitatea eta diskriminaziorik eza, eta, haiek haztatzeko orduan, begiratuko da ea jarduera dirulaguntzaren xedea lortzeko egokia den edo ez, alderdi hauek kontuan hartuta: aurkeztutako proiektuaren kalitatea edo gauzatutako jardueraren kalitatea, esperientzia edo ibilbidea, berrikuntza, bideragarritasun baldintzak, edo, oro har, deialdian ezarritako bete edozein alderdi, dirulaguntza emateko orduan aintzat hartzea egokitzat jotzen bada.

m. Zelan jakinaraziko den edo emango zaio publizitatea deialdiari, 39/2015 legearen 41. artikuluan ezarritakoaren arabera (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

2. Printzipio orokorrak.

Esleitzen diren dirulaguntzak printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

- Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibitatea, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.

- Eraginkortasuna ezarritako helburuak betetzeko.

- Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orearen Sailak baliabideak efizientziaz esleitu eta erabiltzea.

3. Onuradunek bete behar dituzten baldintza orokorrak.

Onuradunak direla joko da dirulaguntza esleitzeko zio den egoeran dauden pertsona fisiko edo juridikoak edo oinarri arautzaileetan eta deialdian jasotzen diren inguruabarrak eragiten dietenak, 38/2003 Legean (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra), 11/2016 Foru Arauan eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Dirulaguntza eskatu ahal izango dute eskabidea egiten den egunean 38/2003 Legearen 11. eta 13. artikuluetan (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra) eta 11/2016 Foru Arauaren 10. eta 12. artikuluetan (11/2016 Foru Araua, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzena) ezarritako baldintzak eta beste baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

- Pertsona juridikoak badira, legez eratuta egon behar dute.

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik izatea.

Ez dira onuraduntzat joko:



- Laguntza lerro horren aurreko deialdietan dirulaguntzak esleitu eta dirulaguntzak zekartzan betebeharrak betetzen ez dituztenek.

- Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Sailaren aurrekontuan dirulaguntza izendunak dauzkatenak, haien xedea dirulaguntzarena bera delarik, eta, halaber, haiekin elkartea osatzen dutenak.

- 38/2003 Legearen IV. tituluan aipatzen diren arau hausteengatik zehapena ezarri zaienak, (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzen orokorra) edo 4/2005 Legean (Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa) eta 3/2007 Lege Organikoan aipatzen diren kausetan erortzen direnek (3/2007 Legea, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerakoa).

Deialdiak determinatuko ditu dirulaguntza eskuratzeko behar diren baldintza espezifikoak eta horiek egiaztatzeko modua.

Dirulaguntzen onuradunek egiaztatu egin beharko dute zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dauzkatala, non eta ez diren salbuetsiak 58/2004 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, organismo eskudunek kontu horiei buruz jaulkitako justifikazio agiriak aurkeztuz; halaber, ezin die eragin 38/2003 Legeak 13.2 artikuluan ezarritako debekuetako batek ere (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra). Zerga betebeharrari dagokienez, Arabako lurralde historikoan zerga egoitza duten onuradunek nahikoa dute egoera horretan daudela adieraztea, eta Foru Aldundiaren gain geratuko da ziurtagiria jaulkitzea Foru Ogasunaren bidez.

4. Eskabideak aurkeztea: epea.

1.-Eskabidea aurkezteko epea deialdian egongo da ezarrita, eta ezingo da izan hamabost egun baino gutxiago, dagokion deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Eskabideak diputatu nagusiordeari eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko diputatuari zuzendu behar zaizkio, deialdiaren eranskinean argitaratuko den ereduaren arabera, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu ahal izango dira (Probintzia plaza, 5, Gasteiz), edo Foru Aldundiaren beste erregistro batzuetan eta itundutako udalen erregistro orokorretan, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoa (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa).

Baldin eta aurkeztutako eskabideek ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Sailak interesdunei eskatuko die konpon dezatela hutsa edo aurkez ditzatela aginduzko agiriak, eta adieraziko ezen, osterantzean, artxibatu egingo dutela eskabidea, adituz atzera egin dutela beren eskaeran.

2. Nolanahi ere, berariaz adieraziko da jakinarazpenak egiteko helbidea.

3. Dirulaguntzak eskuratzeko eskabideak aurkezteak esan nahi du oinarri hauetan eta kasuan kasuko oinarri espezifikoetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

5. Deialdia ebatzea.

1. Prozedura bideratzeko organo eskuduna Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Sailean dirulaguntza izapidetzen duen unitate organikoa izango da.

2. Balorazio batzorde batek aztertuko ditu eskabideak, eta Lurralde Oreekako zuzendaria izango du buru, eta Lurralde Oreekaren Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari kide; Toki Administrazioaren Zerbitzuko burua izango da idazkari.



Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak, egoki deritzen kasuetan, aukeran izango du aurkeztutako agiriei buruzko datuak eta azalpenak eskatzea. Espedientea atzeratu, eta are artxibatu ere egin daiteke, datu edo azalpen horiek ez badira bideratzen 39/2015 Legeak ezartzen dituen epeetan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

Balorazio batzordeak, aurkeztutako eskabideak alderatu ondoren deialdian ezarritako irizpideen arabera, txosten bat emango du, ebaluazioaren emaitza zehaztuz eta eskabideen artean hurrenkera bat ezarri emaitzaren arabera.

Organo bideratzaileak, espedientea eta balorazio batzordearen txostena ikusirik, behin-behineko ebaluazio proposamena egingo du, behar bezala arrazoituz.

Aukeran izango da entzunaldi izapidea alde batera uztea, prozeduran interesdunek adierazitako egitateak eta alegazioak baino ageri ez direnean edo kontuan hartzen ez direnean; kasu horretan, ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

3. Organo eskudunak, organo instruktoreak proposatuta, dagokion ebazpena emango du, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan ebazpen espresik eman ezean, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

4. Dirulaguntza esleitzeko ebazpenak, bestalde, honako hauek jaso behar ditu: dirulaguntza nori esleitu zaion; gainerako eskabideen ezespren espresa; eta, aukerakoa izanik, eskabideen zerrenda bat, oinarri arautzaileek onuradun izateko ezarritako baldintza administratibo eta teknikoak bete arren deialdian ezarritako gehieneko kreditua gainditzearen ezetsi egin diren guztiena, haien arteko hurrenkera deialdian ezarritako balorazio irizpideen arabera bakoitzari eman zaion puntuazioari jarraituz ezarri.

Kasu horretan, onuradunen batek uko egiten badiu dirulaguntzari, organo eskudunak erabakiko du, beste deialdi bat egin beharrik gabe, dirulaguntza esleitzeko puntuazio hurrenkera hurrengo dagoen eskatzaileari edo eskatzaileei, baldin eta, betiere, onuradunetako baten ukoarekin, behar beste kreditu liberatzen bada gutxienez ezetsitako eskabideetako bati erantzuteko.

5. Ebazpena baiestekoa bada, dirulaguntza zenbatekoa den adieraziko da, nola ordainduko den, eragiten zaion jardueraren programa, zer dokumentazio aurkeztu behar diren eta zein baldintzarekin ematen den dirulaguntza, eta jakinarazi egingo zaie onuradunei, 39/2015 Legearen 41. artikuluan ezarritakoaren arabera (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

6. Dirulaguntza esleitzeko edo ukatzeko ebazpena eskatzaileari jakinaraziko zaio, 39/2015 Legearen 41. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako moduetakoren batean (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

7. Ebazpenak administrazio bidea agortzen du; beraz, administrazioarekiko auzibideetarako jurisdikzioa arautzen duen Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik (29/1998 Legea, uztailaren 13koa), haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke, Gasteizko administrazio auzietarako epaitegietan. Horretarako bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurkatu ezean, aukeran izango da haien kontra berraztertze errekurtsioa aurkeztea ebazpena eman zuen organoaren aurrean hilabete batek epean, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).



6. Dirulaguntzaren zenbatekoa edo hura determinatzeko irizpideak.

1. Deialdia, dirulaguntzaren xedea kontuan harturik, dirulaguntzaren banakako zenbatekoa jasoko dute. Deialdiko laguntza lerroetako bakoitzean soberakinak sortuz gero, aukeran izango da gainerako laguntza lerroetako zenbatekoa gehitzea ekitaldian bertan.
2. Ezinezkoa bada hura determinatzea, deialdian irizpide objektiboak ezarri beharko dira hura zehazteko, eta, hala balegokio, irizpide horiek nola haztatu behar diren, dirulaguntzaren xedeari egokিতuta, eta horien artean egon beharko da nahitaez aurrekontu baliabideak aintzat hartzea.
3. 3.- Salbuespen gisa, uste bada eskabideen zenbatekoaren bolumena nabarmenki handiagoa izan daitekeela ezenez dirulaguntzetarako izendatutako gehienezko zenbatekoa, eta ezarritako baldintzetan aldaketarik ez badakar, aukeran izango da deialdietan onets dadin hainbanaketa egitea eskatutakoaren eta dirulaguntzetarako izendatutako gehienezko zenbatekoaren artean.
4. Ez dute dirulaguntzarik jasoko behi dagokion deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera baloratu ostean 150,00 eurora iristen ez diren eskabideek, edo, hala balegokio, dagokion deialdi oinarrietan ezarritako zenbatekora iristen ez direnek.

7. Zer gasturi eragiten dion dirulaguntzak. Bateragarritasuna.

1. Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzak egindako gastuak ordaintzeko izango dira, zer proiektutarako esleitu ziren, hura gauzatzearekin zerikusi zuzena daukatenak; deialdi bakoitzean ezarriko dira diruz lagundu ahal diren kontzeptuak.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta oinarri arautzaileek ezarritako epeetan egiten direnak.

2. Aldiz, ondoko gastu hauek ezin dute dirulaguntzarik jaso:

- a) Bankuko kontuen korritu zordunek.
- b) Korrituek, errekarigiek eta administratibo eta zigor zehapenek.
- c) Prozedura judizialeko gastuek.

Zergak diruz lagundu ahal diren gastuak dira, dirulaguntzaren onuradunak ordaintzen baditu. Zeharkako zergak berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez.

3. Dirulaguntzaren xedea kontuan hartuta, deialdi bakoitzeko oinarri arautzaileek dirulaguntzen onuradunek egindako zeharkako gastuen % jakin bat ezarri ahal dute eta berau diruz lagundu daitekeela ulertuko da, justifikatu behar izanik gabe, betiere kostu horiek jarduera benetan gauzatzen den aldiari badagozkio.

4. Dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da izan onuradunak gauzatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa, beste administrazio publiko edo ente publiko edo pribatu batzuek (estatukoak nahiz nazioartekoak) emandakoak ere kontuan hartuta.

5. 38/2003 Legearen 31.3 artikuluan ezarritakoa, betez, (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra) diruz lagun daitezkeen gastuaren zenbatekoak gainditu egiten baditu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean kontratu txikirako ezarritako kopuruak, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako konpromisoa hartu, zerbitzua eman edo ondasuna entregatu baino lehen, salbu



eta bere ezaugarri berezien ondorioz merkatuan ez badago erakunde kopuru nahikorik hori egin, eman edo hornitzeko, edo gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada.

Hiru eskaintzak froga-agiriekin batera edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran aurkeztu beharko dira. Horien artean aukeratzea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da eta, aukeratutako eskaintza diru aldetik hoberena ez denean, egindako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean.

8. Ordainketak

Dirulaguntza ordaintzeko, alde zuzenetik onuradunak justifikatu egin beharko du gauzatu duela dirulaguntza emateko arrazoi izan zen jarduera, proiektua edo xedea edo jokatu duela hura emateko eskatzen zen jokabidearekin, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritako baldintzen arabera.

Dirulaguntza arautzen duen araudian agertu beharko da jasota ordainketa aurreratua eta konturako ordainketak egiteko aukera, foru araudian ezarritakoaren arabera.

Aurrerakinaren ordainketa, dirulaguntza esleitzeko ebazpenean hala adierazten bada, deialdia ebazten den egunetik aurrera egin beharko da.

Aurrerakinik bada, gainerakoa ordainketa bakar batean ordainduko da, alde zuzenetik gastuak justifikatuta, haiek behar bezala xehakaturik, eta, ordainketa horretan, aurreko paragrafoan adierazitako “aurrerakina” kendu beharko da; hala eta ere, guztirako gastuak justifikatu beharko dira justifikazioa aurkezteko ezarritako epe berean.

Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu izana frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza.

Beranduenez ere dirulaguntza eman eta hurrengo ekitaldiko otsailaren azken ostiralean amaituko den epea baten barruan aurkeztu beharko dira dirulaguntza justifikatzen duten gastuen egiaztagiriak.

9. Dirulaguntza aldatzea.

Onartutako dirulaguntza berriro aztertuko da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakiten bada. Horrelakoetan, diruz lagundutako gastuen eta diru sarreraren arteko likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitarioa izango da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketaren bat gertatuz gero eta, kasu guztietan, edozein entitate publiko edo pribatuk gai bererako dirulaguntzak edo laguntzak eskuratuz gero, esleipen-ebazpena aldatu egingo da, eta dirulaguntzaren zati bat itzuli. Behin dirulaguntza onetsitakoan, hura esleitzeko arrazoi izan ziren egitatezko inguruabarrek hura aldatzea eragiten badute, diputatu nagusiordeak eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko diputatuak, dirulaguntzaren onuradunak arrazoituki proposatuta, bere esku izango du dirulaguntza aldatzea dagokion Foru Aginduaren bidez.

10. Justifikazioa

1. Dirulaguntzak jasotzen dituzten entitate onuradunek, berriz, deialdia egin eta hurrengo urteko urtarilaren 10era arteko epea izango dute —salbu eta deialdian beste epe bat ezartzen bada, baina beti ere deialdiaren urtearen barruan— organo instruktoarean aurrean justifikatzeko bete dituztela ezarritako baldintzak eta dirulaguntza emateko egintzan jasotzen ziren helburuak.



2. oro har, onuradunaren justifikazioa kontu justifikagarrien bidez egingo da, Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 72. artikuluan aipatzen diren gastuen frogagiriak aurkeztuz.

a) Diruz lagundutako jarduera gauzatzeak eragindako gastuak behar bezala xehakaturik ageri dituen justifikazioa, dirulaguntza kalkulatzeko oinarritzat hartutako gastu aurrekontuaren orotarako zenbatekoa adina; horretarako, dagozkion ordainagiriak eta gainerako agiriak aurkeztu beharko dira, merkataritzako trafiko juridikoan froga gisako balio baliokidekoak edo administrazio eraginkortasunekoak, haien jatorrizkoak nahiz fotokopia konpultsatuak, baldin eta azken kasu horretan hala ezarrita badago deialdietako bakoitzaren oinarrietan. Aitzitik, 500,00 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatu beharko da.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Igorlea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Eguna.
- Faktura zenbakia

Era berean, PFEZ – Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako txikipenen arloko araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak ez dira onartuko gastu justifikagarri gisa.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauek onartuko dira:

- Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua daukala.
- Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Posta arruntez jasotako banku laburpenak, jatorrizkoak.
- Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.
- Jatorrizko erosketa txartelak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza gune, autobide, bidaia txartel eta abar) edo jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzaileak jarritako zigiluarekin, ordainduta daudela adieraziz. Ez dira diruz lagunduko 10 km baino gutxiagoko distantziak.

Urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. artikulua betetzeko, ez dira onartuko 2.500 euro (edo horren kontrabalia atzerriko dirutan) edo gehiagoko eragiketen eskudiruzko ordainketak.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, hau da, 2.500 euro edo horren kontrabalia kalkulatzeko, ondasun ematea edo zerbitzu ematea zenbat eragiketa edo ordainketatan zatitu den, horien guztien zenbatekoak batuko dira.



Deialdi horietako bakoitzaren oinarrietan hala ezarrita egonez gero, aurkeztutako justifikagiriak markatu egingo dira dirulaguntza izapidetzen duen unitate organikoan, zigilu markarekin, eta zein dirulaguntza justifikatzeko aurkeztu diren adierazi beharko da han, eta bai ere justifikagiriaren zenbatekoa guztiz edo partez egotzen zaion dirulaguntzari. Azken kasu honetan, gainera, dirulaguntzak eragindako zenbateko osoa adierazi beharko da.

Dirulaguntza kalkulatzeko oinarri hartu den gastuen aurrekontu osoa ez bada justifikatzen, dirulaguntza jaitsi egingo da gastu txikienaren proportzioan.

b) Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren diru sarrera eta gastuen balantzea.

c) Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren memoria.

d) Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31.3 artikulua aplikatuz onuradunak eskatu beharrekoak diren hiru aurrekontuak..

e) Zerrendan sartutako kostu orokorrak edota zeharkakoak banatzeko irizpideen adierazpena, hala badagokio, a) atalean aipatutakoari jarraikiz, salbu eta dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan oroharreko konpentsazioa aurreikusi bada, justifikatzeko beharrianik gabe.

f) Hala badagokio, itzulketaren ordain gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; bai eta horietatik eratorritako interesena ere.

3. 60.000 eurotik beherako dirulaguntzetarako, justifikazioa justifikazio kontu sinplifikatua aurkeztuta egiteko ezarriko ahalko du deialdiak, Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelameduaren 75. artikulua araututako eran.

Honela osatuko da justifikazio kontu erraztua:

1) Memoria bat, justifikatuz dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak nola bete diren eta adieraziz gauzatutako jarduerak eta lortutako emaitzak.

2.º). Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat. Zerrendan hartzekoduna, gastuen agiria edo ordainagiria, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data identifikatu behar dira Deialdi bakoitzaren oinarrietan determinatu beharko da zein gutxieneko zenbatekotik aurrera -gastu bakoitzerako, banaka hartuta, edo gastu kontzeptu bakarerrako denak batera hartuta-, aurkeztu behar diren ordainagiriak edo dokumentu baliokide jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak eta dagozkien ordainketa justifikagiriak.

3) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; baita horietatik eratorritako interesena ere.

Dirulaguntza ematen duen organoak egoki iritzitako frogagiri guztiak egiaztatuko ditu, deialdietan adostutako laginketa tekniken bitartez, dirulaguntza behar bezala aplikatu den argitzeko. Horretarako, hautatzen dituen gastu frogagiriak igortzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

4. Salbuespenez, diruz lagundu daitekeen jardueraren xedea unitate fisikoen edo beste parametro batzuen arabera neur daitezkeen jarduerak egiaztatzea bada, moduluka justifikatu ahal izango dira gastuak, salbuespenez, dirulaguntza eman izanaren arrazoiak modu frogagarrian egiaztatuta, eta hala badagokio, dirulaguntzaren justifikazioa dirulaguntzaren xedeari aplikatuko zaio.



Dirulaguntza justifikatzeko dagokion jarduera memoria aurkeztu beharko da, bai eta memoria ekonomikoa ere, Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 78.2 artikuluan aurreikusitako edukiarekin.

5. Dirulaguntzak justifikatzean baliabide elektronikoan, informatikoan eta telematikoan erabilera arautzen duen uztailearen 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin bat etorriz, justifikatzeko modu gisa erabili ahal izango dira faktura elektronikoak.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e eta Ef4ktur motako estandarretara egokitu beharko da haien formatua. Elektronikoko sinatutako beste edozein agiri aurkeztuz gero, @firma plataformak onartzen dituen ziurtagiriak onartuko dira..

6. Adierazitako epea igaro eta lehen aipatutako agiriak aurkeztu ez badira, ordainketa kredituak baliogabetu egingo dira, eta "konturako ordainketa" gisa jasotako dirua itzultzeko espedienteari hasiera emango zaio.

11. Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna

Beste administrazio batzuek zein nazioko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatuek emandako beste dirulaguntza batzuk jasotzea onartu ahal izango du deialdiak, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez bada diruz lagundutako jarduera baino gehiago edo ez badu eragiten eskatutako finantzazioa jaisterik, hala badagokio, diruz lagundutako jarduera aurrera ateratzeko.

12. Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekan Sailaren babesak

Dirulaguntzen onuradunek argi eta garbi adierazi beharko dute Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapen eta Lurralde Orekan Sailaren laguntza dutela egitarauetan, iragartzeko karteletan, argazkietan nahiz diruz lagundutako proiektua dela eta argitaratzen diren gainerako material grafiko, idatzi zein entzunezkoetan. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili behar izango dira.

Erakunde onuradunak hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatu behar du agiri guztietan, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, betetzeko. Aipatutako Legeari jarraituz, argitaratzen diren irudietan ezingo dira pertsonak erakutsi, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa, estereotipo sexistak saihestuko dira eta bultzatuko da dibertsifikazio sexuala, roletakoa eta genero identitateetakoa.

13. Dirulaguntza itzultzea.

11/2016 Foru Arauan (Arabako lurralde historikoko dirulaguntzei buruzkoa) eta 38/2003 Legean (azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra) eta 887/2006 Errege Dekretuan (uztailearen 21koa, 38/2003 legearen Erregelamendua onartzekoa: 38/2003 Legea edo Dirulaguntzen Orokorra) ezarritako kasuetan itzuli egin beharko dira jasotako dirulaguntzak.

Jaso ondoren itzuli beharreko dirulaguntzak zuzenbide publikoko sarrera izango dira, eta Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauko I. kapituluko II. tituluaren ezarritakoaren arabera kobratuko dira.

14. Egiatza

Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekan Saileko foru diputatuak deialdi honen eta, hala badagokio, oinarri hauen garapenerako bidezkoetat jotzen diren ebazpenak



onartuko ditu, dirulaguntza tramitatzen duen unitate organikoaren ekimenez, eta akzioak baliatu ahal izango ditu erakunde onuradunek emandako datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko eta horretara behartzeko.

Horretarako, erakunde onuradunek konpromisoa hartzen dute beraiek egindako jarduerekin loturik dauden eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Sailak eskatzen dizkien datu eta dokumentu guztiak emateko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste erakundeek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

15. Erantzukizunak.

Onuradunek beren gain hartuko dituzte beren jarduera edo programak gauzatzearen ondoriozko erantzukizun guztiak, eta indarrean den legediak haiek gauzatzeko galdegiten dituen baimen guztiak eskatu beharko dituzte.

16. Interpretazioa.

Oinarri hauen interpretazioan edozein zalantza sortuz gero, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Sailak ebatziko ditu.

17. Errekurtsoak.

Oinarri hauek eta haien ondorioz sortutako administrazio egintza oro aurkaratu ahalko dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezarritako kasuetan eta eran.

18. Aplikatu beharreko arautegia

Oinarri hauetan xedatu ez den edozertarako, honako arau hauek aplikatuko dira: 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoa; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzena; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko 38/2003 Legea Orokorra onartzen duena, uztailaren 1ekoa; 53/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu araubide ekonomikoarena, indarrean dagoen aurrekontu antolamendua; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena; eta aplikagarriak diren gainerako arauak.

19. Indarrean sartzea

Oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

Iñaki Guillerna Sáenz

Lurralde Oreken zuzendaria
Director de Equilibrio Territorial